


Apezpikuaren prostituten hilerria



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ingalaterra, 1129. Eztebe I.a erregeak haren anaia, Henrike Bloisekoa, Winchesterreko apezpiku izendatu zuen. Horrenbestez, besteak beste, Surrey konderriko Southwark auzunea haren jurisdikziopean geratu zen. Lehenago, Londresko agintariak prostituzioa eta haientzat moralki zalantza ziren beste jardura batzuk Tamesis ibaiatz bestaldera mugitzea erabaki zuten, Southwarkera. Horregatik, auzoari *Liberty* esaten zioten, bertaratutakoek –eta ez sexu-langileek– ia edozertarako askatasuna zutelako.

Southwark ez zen Londresko eskumena, ezta Surreyko konderrikoa ere; Winchesterreko apezpikuak agintzen zuten bertan. Ia gehienetan bezala, garai hartako Ingalaterran ere, agintari moralek prostituzioa kondenatzen zuten eta agintari politikoei, aldiz, nabarmenki batzuetan, modu sotilagoan bestetan, baimendu egiten zuten. Henrikek bi aginteak hartu zituen beregain eta, gainera, anaiak pribilegio gehiago eman zizkion karguari: besteak beste, zerga gehiago ezarri zizkien Southwarkeko negozioei eta, beraz, prostitutei –*Winchester geese* esaten zieten, Winchesterreko apezpikuaren antzarak, alegia–.

Bere antzarek esker aberastu arren, haietako bat hiltzen zenean hilerrian –lur sagaratu– ehorztea debekatu zuten



CROSS BONES HILERRIKO HESIAN PLAKA OROIGARRI BAT DAGO, ANTZARA BATEN IRUDIA DUENA, SOUTHWARKEKO PROSTITUTEN OMENEZ. HESIA LOREZ ETA MEZUZ JOSITA DAGO.

ALLISON MEIER

apezpikuak. Gorpuak hobi komun batera botatzen zituzten. Cross Bones (hezur gurutzatuak) zuen izena ofizialki, baina herritarrek, eufemismoa erabiliz, “emakume ezkongabeen hilerria” esaten zioten. Hobia 1853an itxi zuten, baldintza kaxkarretan eta gorpuz gainezka.

1990eko hamarkadan, metroa zabaltzeko lanetan, 148 eskeleto aurkitu zituzten azaleko geruzetan. Sakontzen hasi eta orotara 15.000 gorpu daudela

kalkulatu zuten: gehienak, haur jaioberririak, urtebetez azpikoak eta gaixotasun benereok zituzten emakumeak.

Orube horretan bulego-erakin bat egin nahi dute orain, baina hainbat herritarrek, John Constable idazlea buru, *Friends of Cross Bones* taldea sortu dute proiektuaren aurka egiteko. Hilerria hausnarketarako lorategia izatea nahi dute, gizarteak zukutu eta ondoren baztertukoak oroitzekeo gunea. ●

Optogramak, azken argazkiak



1878an Wilhem Kühne (1837-1900) fisiologo alemaniarra XVII. mendean sortutako teoria bat frogatzen saiatu zen: ikusten duguna begian erregistratuta geratzen dela, plaka fotografikoetan bezala, eta hiltzen garenean ikusitako azken irudia gordeta geratzen dela. Untxi albino bati burua estali zion; gero, hiru minutuz leiho batetik begira jarri zuten

eta lepoa moztu zion. Hainbat produktu kimiko erabilia, erretina errebelatu zuen eta lehenengo optograma lortu zuen (ezkerreko irudi “argigarria”). Gillotinan hiltzera kondenatutako gizaki batekin berdinean egin zuten eta emaitza are ilunagoa izan zen. Optografiaren teoriak indarra galdu zuen, biktimak aurrez aurre erasotzen dituzten hiltzaileen zorionerako. ●